

Orain dela 35 urte, Ekonomia eta Ogasuneko Saileko Azterlan Ekonomikoen eta Koiunturaren Zuzendaritzako ekonomialari-talde batek aldizkari bat sustatu genuen, helburu honekin: gure herriko errealitateari eta arazo ekonomikoei buruz hausnartzen laguntzea, hausnarketa horren emaitzak bideratzea eta ekonomiaren arloan erabakiak hartzeko prozesuan asmatzen lagunduko zuten ondorioak eta gomendioak ateratzea. Horrela sortu zen *Ekonomiaz*.

Ilusioz ekin genion ekimenari, baina garai hartako egoerak behartuta ere bai, nire ustez. Urte gris eta zailak izan ziren, eta 1985eko neguan, oso egoera gogorra bizi izan zuten herrialde guztiek, baina bereziki Euskadi hasi berriak; izan ere, industria-birmoldaketan bete-betean sartuta zegoen, eta langabezia %23 ingurura igo zen, gaur egun pentsaezina iruditzen zaigun mailara. Eta, arazo horiei aurre egiteko, ideiak eta proposamenak behar ziren. Aldizkariaren lehenengo zenbakiaren edukietan ere, argi islatzen zen lan-krisiak zuen lehentasuna eta sortzen zuen kezka, tituluak berak erakusten duenez: *Krisia eta lan-merkatua*.

Bidea hasita, Aldizkariak bere ibilbideari jarraitu dio etapa ezberdinetan, uztartuz hasierako helburua, lehenago aipatu duguna, eta kalitatezko ikerketa ekonomikoaren sustapena eta zabalkundea. Gaur egun, *Ekonomiaz* aldizkaria –97 zenbaki argitaratu ditu– aintzat hartzen da hala unibertsitateko ikerketa-eremuetan nola Ekonomiako ikerketa-zentroetan. Era berean, hasieratik, kanporantz hazteko bokatzea izan du, eta gaur egun nazioarteko apustu irmoa egiten du, baina betiere Euskadiri eta haren errealitate ekonomikoari begira. Beraz, ikuspegi globala, erronkak globalak direlako, baina erantzunak tokikoak izan behar dira.

35 urteko ibilbidearen ondoren, Aldizkariaren dinamismoa ospatu nahi dugu berriz ere, ale berezi hau argitaratuz; bertan, aztertzen da, batetik, zer aztarna utzi zuten Euskadin Atzeraldi Handiak, eta, bestetik, zein diren Euskadik datorren markadan dituen erronka nagusiak. Erronka horiek indarrean jarraitzen dute, baina pandemiak eragindako krisiak moldatu eta azkartu egin ditu. Oroitzapenezko zenbaki honetan, hamasei artikuluko eskaintzen dira, ekonomialari adituek idatziak (batzuek harreman estua izan dute *Ekonomiaz* aldizkariarekin), eta ikuspegi ezberdi-

netatik, bakoitzaren espezializazio-arlotik, aztertzen da nola eragin zuen Euskadin Atzeraldi Handiak eta zer erronka ditugun aurrean.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet oroitzapenezko zenbaki honetan parte hartzen duten aditu guztiei; izan ere, ikuspegi ezberdinetatik jorratutako lan horiek gaur egungo egoeraren irudi zabala eskaintzen digute, eta etorkizunari buruzko ikuspegia. Ziur gaude *Ekonomiaz* aldizkariko irakurleek gozatuko dutela artikuluak irakurtzen. Era berean, zorionak eman nahi dizkiet Aldizkariaren kudeaketa-organoetan etapa ezberdinetan parte hartu duten pertsona guztiei, bai eta 35 urte haue-
tan ideia eta gomendio baliagarriak eman dizkiguten egileei ere, *Ekonomiaz* aldizka-
ria analisi ekonomiko aplikatuaren arloko erreferentziatzko argitalpen gisa kokatu
eta mantendu baitute, eta politika publikoen erabakietan lagundu baitute urte haue-
tan zehar euskal ekonomiaren oparotasun-ibilbideak ezarriz.

Pedro María Azpiazu Uriarte
Ekonomia eta Ogasunaren Sailburua